

Kultura eta sistema: kultura sistema bat bezala hausnartzeko proposamen bat

Iñaki Arrieta Urtizbera
Psikologian lizentziatua

Artikulu honetan kultura sistema bat bezala ulertzeko egile honek egin dituen hausnarketak irakur daitezke. Honetarako, egileak bi iturrietatik jasoko ditu berriak eta ideiak. Alde batetik zenbait antropologok kulturari buruz idatzitako zehazpenak eskuratuko ditu, eta bestetik, sistema orokorren teoriak emandako printzipioak kontutan izango ditu. Helburua kulturaren zenbait arlo mailaz antolatzea eta herri baten kultura ulertu nahi baldin badugu denak beharrezkoak direla azpimarratzea izango litzateke.

In this article the reader can find the reflections the author has made about culture, culture understood as a system. On the one hand, he will have the specific definitions made by some anthropologist, and on the other hand he will realise the rudiments given by the general system theory. The objective is to organise some cultural aspects and to emphasize that they all are equally important if we want to understand the culture of the people.

Saio honen helburua kulturaren kontzeptuari sistemaren oinarriak aplikatzea izango da, zabala, zehatza eta osoa izan dadin. Honetarako berriak edo ideiak bi iturrietatik jasoko ditut. Alde batetik zenbait antropologok kulturari buruz idatzitako zehaztapenak eskuratuko ditut, eta bestetik sistema orokorren teoriak emandako printzipioak kontutan izango ditut.

I

Antza denez, zaila izaten da herri batez, gizarte batez edo nazio batez aritzen garenean kultura hitza ez azaltzea. Hemen, Euskal Herriaz aritzen garenean ere zer esanik ez; toki guztietan azaltzen da bai telebista programetan, bai irrati saioetan, bai egunkarietan, eta abarretan. Orobat lan antropologiko bat egiterakoan, oraindik zailagoa egiten zaigu kultura kontzeptua edo hitza aipatu gabe zerbait idaztea.

Kontzeptu hau oso erabilgarria izan arren, bere oinarriak edo bere ezaugarriak gutxitan agertzen zaizkigu; hala edo horrela, herri baten izaera ulertzerakoan edo herri berean gertatzen den fenomeno txiki bat konprenitzerakoan erabiltzen da.

Beraz, hitz hau asko eta asko erabiltzen denez oso irristakorra da. Adibidez, askotan, zertaz den zehatz-mehatz jakin gabe aipatzen da; beste batzuetan esangura bat baino gehiago izango ditu, eta abar.

Artikulu honetan zenbait definizioz, kontzeptuz eta ideiaz baliatuz beste bat proposatuko dizuet.

II

Kultura, orokorrean, zerbait osagarria eta konplexua dela ulertu izan da, eta gizakiarengandik at dagoela. Horrela uler genezakeela uste du Tylorrek, kulturari buruz, 1871. urtean emandako lehendabiziko edo lehendabizikoenetako definizioan eta agian garrantzitsuenetakoa¹:

Cultura o civilización, tomando la palabra en su más amplio sentido etnográfico, es el complejo, todo o conjunto, que incluye conocimiento, creencia, arte, moral, ley, costumbre u otras capacidades y hábitos, adquiridos por el hombre como miembro de la sociedad (Caro Baroja 1985: 76).

Gure artean ere izan ditugu kontzeptu hau landu duten bi maisu. Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja. Esan beharrik ez dago kontzeptu hau askotan erabili dutela eta baita ere askotan beraien definizioak eman dizkigutela. Besteen artean hurrengo hauek azaldu zituzten:

La naturaleza (las fuerzas naturales) realiza innumerables fenómenos físicos, químicos, etc.; el hombre los interpreta, los explica y aún llega a provocarlos a discreción, desarrollando de este modo la ciencia y la técnica. La naturaleza ofrece multitud de elementos que el hombre retoca y combina, dándoles formas agradables y bellas, y creando

1. Lehendabizikoa eta garrantzitsuenetakoa aipatu dut Claude Levi-Straussek eta Julio Caro Barojak idatzitakoan oinarritu naizelako:

«Kultura nozioaren jatorria ingelesa da, Tylorri zor baitiogu kulturaren lehendabiziko definizioa, hau da "osotasun konplexu hori, biltzen duena ezaguera (...)" (Levi-Strauss 1992 368).

«Llegando a formular esta definición memorable, basada en la de Klemm pero, mejor perfilada» (Caro Baroja 1985: 76).

así las artes. La naturaleza dotó al ser humano de diversas fuerzas y tendencias (pasiones); el hombre las educa, las somete y las pone al servicio de la razón, labrando de esta suerte su "carácter", su personalidad. O también las coordina con las de otros hombres, formando grupos sociales y centuplicando los productos de su actividad. La naturaleza ofrece un panorama grandioso, un plan matemáticamente trazado, un complejo mecánico en que todas las piezas –el hombre es una de ellas– están trabadas y eslabonadas unas con otras mediante relaciones causales; el hombre lo contempla, adquiere del Universo una visión de conjunto, comprende que, entre tantas causas, existe una primordial sin la cual las demás no tendrían razón de ser, un primer eslabón de quien penden los demás, y con esto aprende a situarse a sí mismo en el punto que le corresponde en la escala de los seres, forma idea más precisa y estable de su dignidad, descubre en las cosas orientación y polaridad, y así consigue dar un sentido racional –religioso– a la totalidad de su vida.

Según esto, la cultura constituye un resultado obtenido por el hombre al cultivar sus facultades bajo el control de la inteligencia; es la suma de las soluciones que ha dado el hombre como respuesta a las necesidades más fundamentales de la vida, soluciones que pueden resumirse en los siguientes capítulos: sistema económico, industria,

instituciones sociales, arte, ciencia y religión (Barandiaran 1974: 406).

Hona hemen Caro Barojaren hitzak:

Toda sociedad, todo conjunto de hombres que viven en un lugar determinado más o menos amplio y que hacen un mismo tipo de vida, viven bajo un mismo esquema cultural desarrollando y compartiendo una tecnología, una organización social que comprende desde la familiar y privada hasta la comunitaria, una educación, unas creencias y prácticas religiosas, unas artes, una lengua, o dicho con otros términos, caracteriza con matices propios los ciclos funcionales (...). Toda cultura es consecuencia de una interpretación (Caro Baroja - Flores Arroyelo 1991: 176).

Ondorio anitz erauzenez, liburu bat egiteko adina; batzuk eztabaidagarriak edo problematikoak edo onargarriak izan litezke, baina horien artean lau azpimarratuko nituzke. Bat, gizakien eta gizartearen bizitza osatzen duela², horregatik azaltzen da arlo guztietan. Bi, giza taldeak modu desberdinetan modelatzen eta koloretzen dituela³; hau agerian geratzen da lurrari gainbegirada soil bat emanez. Hiru, publikoa dela⁴, ezin bailiteke izan beste era batera, bestela talde bateko pertsonak ezingo bailuke-

2. Honetan Claudio Esteba Fabregat bat etorriko litzateke. «Entiéndase por cultura un concepto que define la totalidad de las formas de vida, materiales y espirituales, que constituyen el comportamiento humano institucionalizado o modo de vivir de una sociedad» (Esteba Fabregat 1984: 355).

3. Claude Lévi-Straussek ere horrela ulertzen du: «Kulturatzat jotzen dugu edozein multzo etnografiko prospekzioaren ikuspegitik beste zenbait multzorekiko aldaketa nabarmenak azaltzen dituen» (Levi-Strauss 1992: 316).

4. «Eguneroko bizitzan onartzen dugu, hau arazorik gabe ematen denean, pertsonak elkarrekin banatzen duten beharrezko mundua deitzen zaiona –zenbait hasierako onarpen giza munduaren jatorriari buruz, pertsonen izaera sozialari buruz, gertaerak ematen diren moduari buruz eta horiek inplikatzeko dutena, gutxi gora-behera–. Esangura estruktura honek, bera izanik edozein kulturaren beharrezko zutabea, baimentzen die egile partehartzaleei egunez egun eta orduz ordu giza harremanak berreraiki behar izan gabe hasieratik (elkarrekin topo egiten dutenean) aritzea edo eztabaida semantikoetan hastea (solasean hastea erabakitzen duten bakoitzean). Kultura baten barruan keinutik zabalagoa den esanguren ekintzetara doan zatirik haundiena, gauza arruntetatik baloreetaraino, gertatzen dira neurri haundi batean elkar banatzen direlako» (Rabinow 1992: 46).

te kultura bera izan. Eta lau, gizakiari dagokiola eta interpretazioaren bidez sortzen dela.

Jarraitu baino lehen laugarren ondorio honek eten txiki bat eskatzen du, batez ere prozesu hau beti horrela izan arren gutxitan hartzen delako kontutan. Askotan eta askotan ahazten dira interpretazioaren ondorioak eta azaleko objektibitatean erortzen dira⁵. Hau da, gizakiak ez du sekula mundu fisikoa, berenagatzen, hots, mundu hori den bezala. Mundu gordin honi ezin dio heldu bere gordintasunean; beti nahitaez mundu honek iragazki batzuk zeharkatzen ditu gizakiak bereganatzen duen orduko. Eta hau edozein prozesutan ematen da, bai zerbait behatzen denean –Psikologiak, adibidez, erakusten duen gisan–, bai teoria bat sortzen ari denean, eta baita artikulua bat idazten denean ere. Gauzak ez ditugu berez diren bezala –askotan erabiltzen denez– bereganatzen, beti iragazkiak pasa beharko dituzte. Batzuk konszienteak izango dira, beste batzuk inkonszienteak; baina hala ere, beti zeharkatu beharko dituzte. Eten hau egin nahi izan dut, batez ere, kontu hauek azaleko objektibitatean eroriz ahaztu egiten zaizkigulako. Horregatik egin nahi izan dut azalpen hau, batez ere interpretazioa gizakiaren edozein prozesutan aurkituko dugulako.

Lehengo hariari heldu eta, lau ondorio horiek onargarriak izan arren, zerbait gehiago azaldu behar da. Alde batetik, non koka genezake kultura?

«Kultura publikoa da, bere esangura hala delako. Batek ezin lezake begikeinu bat egin (edo trukaturako begikeinu baten itxura egin) horren esangura jakin gabe edo fisikoki betazala zimurtzen jakin gabe» (Geertz 1992: 26). Interesgarria da “esangura” eta “fisikoki” nola lotzen dituen jokabide bat uler dezagun.

5. «Garrantzitsua da kontutan hartzea erakunde-muduaren objektibitatea (...) giza produkzio eta giza eraikintza objektibitatea dela» (Berger - Luckmann 1984: 83)

«Errealitateaz (...) hausnartuz gero, garbi dago zerbait erreala dela errealitatearen definizioaz egokitzen den neurrian, eta halako definizioak milaka dira» (Watzlawick, Weakland, Fisch 1989: 121).

Beste aldetik, nola ematen da modelazio edo kolorazio hori? Galdera horiei erantzunak emateko Geertzek esandakoak oso aberasgarriak eta baliagarriak izango dira:

Kultura estrukturiari dagokienean, hau da, sinboloen sistemei edo sinboloen multzoari, guretzat hemen garrantzi nagusia duen ezaugarria zera da, kanpoko informazio iturriak direla. “Kanpokoak” esatean ulertzen dudak bakarrik da –geneak ez bezala– norberaren organismoaren mugatik kanpo daudela eta elkar ulertzen duten mundu intersubjektibo batean aurkitzen direla, gizaki guztiak bertan sortzen direlarik, beraien bide ezberdinak garatzen dituztelarik eta azkenean hiltzerakoan uzten dutelarik. “Informazio iturri” esatean ulertzen dudak bakarrik zera da, beraien –geneek bezala– eredu edo jarraibide bat eskaintzen dutela eta honi esker zehaztutako itxura bat eman liezaiekeela kanpoko ihardupideei. DNA katea batean baseen ordenak kodifikatutako programa bat osatzen duen bezala, hau da, zenbait instrukzio edo formula bat egituraz konplexuak diren proteinen sintesirako, funtzionamendu organikoa arautzen dutenak, kultura eskemek programak eskaintzen dituzte jokabide publikoa moldatzen duen prozesu sozialak eta psikologikoak eratzeko. Nahiz eta informazio mota eta bere transmisio eredu oso ezberdinak izan bi kasuetan, genea eta sinboloaren arteko konparazio hau “giza hereditzia” kontzeptu motaren analogia bortxatu bat baino zerbait gehiago da. Erabil dezagun benetan harreman funtzeskoa bezala; hain zuzen, genetikoki egituraturako prozesuak gizakian hain orokorrak direnez behe-mailako anima-

liekin konparatuz gero, horregatik dira hain garrantzitsuak kulturalki egitura-tutako prozesuak; giza jokabidea, barruko informazio iturriez hain ahul mugatuta dagoelako, dira hain beharrezkoak kanpoko iturriak (Geertz 1992, 91).

Goazen emeki-emeki definizio hau aztertzerara. Julio Caro Barojak eta Joxemiel Barandiaranek azaldu digute kultura bat interpretazioaren bidez sortzen dela eta kulturak gizatalde bat moldatzen duela; Geertzek, horrez gainera, gizakiak bizirik jarrai dezan kultura beharrezkoa duela⁶ gehitzen digu, gizakiarengandik kanpo dagoela eta sinbolo sare batean kokatzen dela. Lehendabiziko ekarpena guztiz onargarria da. Bigarrena, berriz, ez litzateke "kanpokoak" bakarrik izango, kanpokoak ez ezik, barrukoak ere bai baita. Kanpokoak da beste gizakiekin parte hartzen duelako. Barrukoak berriz, gizakiarentzat derrigorrezkoa delako eta gizakian gauzatzen delako; honek esan nahi du berak ere parte hartzen duela. Hirugarrena, bi zatitan banatuko dut. Sarea estrukturan kontzeptuarekin definienezake, hau da, sistema baten elementuak eta beren arteko harremanak batzen eta definitzen dituena; eta sinboloagatik Geertzek ongi azaltzen diguna:

Prozesu, ekintza, harreman, entitate eta abarren saila eta beste sail baten, azken hau lehengoaren programa moduan ekiten duena, arteko adostasun estrukturalaren pertzepzioa, aukera izan eta, programa egituratutako errepresentazio gisa edo kontzeptu gisa bihur liteke –sinbolo bat–, giza pentsamenduaren esentzia da. (Geertz Clifford 1992, 92)

Gizakia, munduaren aurrean kokatzen denean, ordena bilatu behar du; ordena hori sortzeko munduko gauzak elkarren artean lotzen joango da; elkar lotzean eta interpretazioaren bidez multzo bat sortzen du; multzo hori eta multzo horren elementuak ez dira gauza bera, baina multzo horrek bere elementuak ordezkatzeko ditu eta biek elkarrengan eragina izango dute. Gainera multzo hori beste batzuekin elkar lotzen joango da sare bat sortu arte, hau da, sistema eta honen estruktura.

III

Baina zer da sistema? Zer da estruktura? Orain arte inongo zehaztapenik eman gabe erabili dugu eta, jakina, horrela utziz gero ez dugu gehiegi aurreratuko; azken finean, hauek ere zentzu eta esangura asko izan

6. Pasarte honetan Geertzek adierazten duena, liburu bereko "Kulturaren garapena eta gogamenaren bilakaera" kapitulu oraindik luzeago eta sakonago azaltzen du. Oso garrantzitsua deritzot kapitulu horri; alde batetik, gure bilakaeran biologiaren eta kulturaren arteko harremanak nola eman diren azaltzen digulako; eta beste aldetik, gizakian kultura non kokatu behar dugun erakusten digulako. Nik argibide gisa hurrengo hau ekarri dizuet: «Nahiz eta pentsaterik izan nerbio-zelulen kopuruaren igoerak berak bere giza gizakiaren gaitasun mentalaren garapenean, giza-burmuinaren dimentsio zabalak eta gizakiaren kultura biak batera azaltzeak eragin lezakeela, ez bata bestearen ondoren; azaldu digu nerbio estrukturan bilakaeran eman diren garapen berriek mekanismoen sorreran dautzatela, hauek eremu nagusi konplexuak mantentzeko aukera ematen dute, eta gero eta gehiago pentsarazten dute eremu hauek berezko parametroetan (jatorrizkoak) bakarrik oinarrituz erabat zehaztea ezinezkoa dela. Gizakiaren nerbio-sistema estruktura sinboliko publikoetara heltzearen baitan dago inondik ere, berezkoak dituen ekintza autonomoen eskemak egingo baditu» (Geertz 1992: 82).

Idea berdina azaltzen digute Peter Berger-ek eta Thomas Luckmanek: «Unibertso sinboliko baten jatorriak, gizakiaren konstituzioan oinarritzen dira. Gizakia gizartean mundu baten eraikitzailea baldin bada, hau horrela izan liteke konstituzionalki emana izan zaion mundurako irekidurari esker, honek aldi berean gatazka dakar ordena eta kaosaren artean» (Berger Peter eta Luckmann Thomas 1984: 137).

ditzakete. Hona bada artikulua honetan ulertu behar den modua.

Sistema orokorren teoriaren beste sortzaileen artean⁷, Ludwig Von Bertalanfy dago. Bera biologoa zenez ohartu zen, orain dela 60 edo 70 urte, biologian erabiltzen ari ziren teoriak eta metodoak oso eskasak zirela. Garai haietan oso modan zegoen, organismo baten portaera azaltzerakoan, teoria bitalista edo analitikoak erabiltzea. Portaera bat argitzerakoan ezin zela arima⁸ bat organismoari ezarraziti edo bere portaera ezin zela atalbanatu azken hau galtzen edo desagertzen zelako iruditzen zitzaion. Berak defendatzen zuen organismoaren errenferentzia –bere osotasunean kontsideratuta– ezin litekeela ahaztu; azken finean hori aztertu, esplikatatu eta ulertu nahi zuten. Hala ere, gure organismo edo objektua ikertzeko ikasgaiez banatzea beste kontu bat izango litzateke, baina ahaztu gabe erlazio sare batean izango direla eta sare horren funtzionamendua argitzea dela helburua.

Osootasun honek edo erlazio sare batek sistemaren kontzeptuaren irizpideak ekartzen ditu. Kontzeptu hau gauzatzeko haren ondorengo batzuk ekarriko ditut gogoetara eta hurrengo pasarteetan onarritzat hartuko ditut. Alde batetik, antropologiaren eta psikologiaren aldetik, Georges Batesonen eta Paul Watzlawicken lanak (Yves Winkinek izendatutako Unibertsitate Ikustezina –Bateson et al. 1994: 27-106–) eta soziologiaren eremutik, Javier Aracilen obra.

Sistema multzo bat izango litzateke. Multzoa elkarren arteko harremana duten zatiez osatuta egongo da eta bere izaera nagusia ez da zatien izaeretan egongo, denek elkarrekin osatzen duten izaeran baizik. Eta ezaugarri hau ezingo da zati batzuen izaeretan murgildu edo laburtu, ezta zati guztien batuketan ere; beste era bateko izaera izango da. Ezaugarri honek eta elkarren arteko harremana duten zatiek baimentzen dute edozein multzo sistema bat kontsideratzea.

Era berean sistemak bi eratakoak izan litezke: itxiak edo irekiak. Lehen-dabizikoak, ingurunearekin energiak, informazioak, edo gaiak ez dituztelako elkartrukatzeko bereizten dira. Bigarrenak, berriz, guztiz kontrakoak dira, eta izugarrizko harremanak izaten dituzte. Artikulu honetan bigarren hauetaz ari gara.

Sistema irekien ezaugarriak, Paul Watzlawick, Janet Beavin Bavelas eta D. Jacksoni jarraituz, hurrengo hauek izango lirateke:

1) Osotasuna. Zati guztiek elkarren arteko harremana dute eta edozein aldatuko bagenu, aldaketa honek gainontzekoen eta sistemaren aldaketa ekarriko luke.

2) Atzera-elikatzea. Hau ezezkoa edo baiezkoa izan liteke. Sistema batek aldaketa baten aurrean bi eratako erantzuna edo erreakzioa izan lezake. Bat, baiezko atzera-elikatzearen bitartez, aldaketaren alde, hau da, sistemaren desorekarantz. Edo, bi, ezezko atzera-elikatzearen bidez, aldaketaren kontra, homeostasirantz.

7. Anatol Rapoport, W. Ross Ashby, Gerald M. Weinberg, John H. Milsum, Walter Buckley, Robert A. Orchard, Preston C. Hammer, C. West Churchman, J.W. Forrester.

8. Askotan ezer ulertzen ez dugunean, zerbait misteriotsua egozten diogu. Ez dut erlijio zentzuarekin erabiltzen.

3) Bukaera berdina. Sistemaren erreakzioaren oinarria ez da egongo eragilearen baitan, sistemaren izaeran baizik. Eragile desberdinek ondorio berdinak izan ditzakete.

Sistema horrela ulertuz gero, sistemaren estruktura izango litzateke sistemaren zati guztiak une batean definitzen edo kokatzen duena. Ez dira nahasi behar sistema eta estruktura-ren kontzeptuak. Sistema batek estruktura asko eta asko izan ditzake; horregatik, sistema berriro antolatzen denean berrestrukturatu egiten dela esaten da.

Dena den, sistemaren zatiak eta beraien arteko harremanak ez dira berdinak, edo hobeto esanda, ez dute nahitaez horrela izan beharrik. Normalean, menpekotasun eta kidetasun motakoak izango dira. Hau da, zati bat era berean izan liteke zenbait zatiren kidekoa –maila berekoa– eta besteen menpekkoa –maila desberdinekoa–.

Kidetasunaren ildotik jarraituz, tipo logikoen teoriari sarrera eman nahi diot. George Batesonek –honek A.N. Whitehead y B. Russell oinarritzat hartzen ditu– esaten duen gisan:

Motetako mota batek ezin du izan bere osagaiak diren motetako bat; izen bat ez da izendatutako gauza bera.

Motetako mota batek ezin du izan zuzenki sailkatuta dauden bere ez-osagaiak bezala (Bateson 1985: 310).

Printzipio hauek sinpleak izan arren, askotan kontutan ez dira hartzen eta

honek zenbait akats logikotan erortzea ekartzen du. Horregatik sistema bat antolatzen denean hobe izango da hauek kontutan hartzea akatsak izan ez daitezen.

Beraz, sistemaren ezaugarriekin zenbait fenomeno, egoera, gertakari, edo abar argitzeko edo ulertzeko eredu bat era liteke. Eredu honek, beste batzuek bezala, mundura hurbilduko gaitu gure jakinmina asetzeko; azken finean jakinmina gizakiaren sustraian aurkitzen da eta honetarako era askotako eredia sor liteke. Hemen ez da defendatzen eredu bat bakarrik izan litekeenik; alderantziz bat baino gehiago izan litezke. Jadanik, eta Giza Zientziei dagokienez, denok dakigu zer gertatzen den guztia argitu nahi duten ereduekin.

IV

Esandakoak esanda eta emandako azalpenak emanda, kulturaren definitzioa proposatuz bukatu nahi dut.

Agian, azalpenek kulturaren irudi abstraktu xamarra erakutsi digute; horregatik ez nuke kultura materiala aipatu gabe utzi nahi, hau ere oso inportantea delako⁹, azken finean sinboloak kultura materialetan gauzatzeko baitira.

Hori dela eta, sistema kontzeptuaren eta tipo logikoen teoriaren (cf. Bateson 1985) baliatuz, kultura bat sistema bat dela esango nuke; sistema horren estrukturan objektu guztiak kokatuta

9. Ikus dezagun bestela, hurrengo egileek zer esaten diguten:

Julio Caro Baroja: «A mí, cuando algún pollo de estos que se dicen antropólogos me suelta que a él la cultura material no le dice nada, no le interesa, pues no sé, pero si eres un hombre que está estudiando, por ejemplo, las formas de vida de un grupo de pastores transeúntes, o un grupo de labradores, o de pescadores, no sé qué coño vas a hacer si no te enteras de su herramentalidad y su materialidad, y con qué objetos trabajan y con qué bases especulan» (Caro Baroja eta Flores Arroyuelo 1991: 130).

daudela kultura materialetik sinboloetara. Beraien arteko funtzioak edo harremanak kidekoak edo menpekoak izango dira, hots, maila berdinekoak edo ezberdinekoak, eta bukatzeko denak elkar lotuta izango dira estruktura bat osatuz. Honek esan nahi du sistemaren objektu bat aldatuko balitz, honek sistemaren estrukturan eta funtzioetan eragina izango lukeela. Adibide simple eta ulergarri batean gauzatuko banu hurrengo hau izango litzateke: hasteko, gizarte-egituraren lehengaiak (pertsonak, ondasunak) izango genituzke, jarraian gizarte-egitura konkretu bat, gero gizarte-egituraren definizioa eta bukatzeko definizioak sortzeko gizakiaren gaitasuna. Ez da erraza azken mailara heltzea¹⁰, baina poliki-poliki horretara hurbiltzen joan behar dugula garbi daukat.

Horrela ulertuz gero kultura ez da testuinguru bat bakarrik izango Geertzek esaten digun eran:

Kultura ez da entitate bat, kausa moduan giza-gertaerak, jokabideak, erakundeak edo giza-prozesuak egotzi diezaizkiokeen zerbait. Kultura testuinguru da, bere baitan zehaztu litezke fenomeno horiek guztiak modu ulergarrian, hau da, modu trinkoan (Geertz 1992: 27).

Kultura, erakundeak, jokabideak, giza-prozesuak, lanabesak, garraioak eta abar ere izango dira. Bestela, nola iritsi sinboloetara? Badakit, agian, nire definizioa zabal xamarra dela; hala

ere, horrela ulertuz gero kulturaren zenbait arlo lotuko dugu. Dena den, eta badaezpada azpimarratu nahi dut, arlo guztiak desberdinak dira, bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina elkarri lotuta daude. Kultura bat, adibidez, ez da balore bat aldatzen delako bakarrik mugitzen, lanabes berri bat barneratu duelako ere:

Para mí la desaparición de estos ritos es la que da una idea, más clara y profunda a la par, del cambio de conciencia sucedido desde 1944 a 1974. En el caso también algunos factores económicos y materiales han influido de modo decisivo en el comienzo del cambio (Caro Baroja 1974: 283).

Hala eta guztiz ere Geertzek ekarri digun ekarpena oso-oso garrantzitsua kontsideratzen dut; agian kultura materiala zer edo zer bazterrean utzi zuen, baina ahaztuta ez.

Bukatzeko, Julio Caro Barojak idatzitako pasarte bat ekarri nahi dizuet. Hemen ongi azaltzen digu herri edo gizarte batean kulturaren arlo desberdinak elkarri lotuta azaltzen zaizkigula eta ikertzerakoan kontutan eduki behar ditugula:

En la segunda parte, dedicada a fijar algunos rasgos de la sociedad rural, estos rasgos se hallan expuestos de modo más descosido: pero el nexo no sólo entre lo material y lo social sino también lo mental, aparece claro en bastantes ocasiones (Caro Baroja 1974: 283).

«Aquellos objetos que el hombre elabora o manipula y las operaciones que en su fabricación o utilización verifica, llevan el sello del pensamiento popular y ostentan vestigios de cultura humana. Tal ocurre con los establecimientos humanos, con la indumentaria popular, con la alimentación usual, con la economía rural y con el arte popular» (Barandiaran 1974: 477).

Geertzek ere kontutan izan du "datuen bilketak" (1992: 24) beharrezkoak direla ikerlana egiteko baina esan dezaket kultura definitzerakoan ia-ia ez duela erabiltzen.

10. «Berriro diogu, prozesu sinbolikoak, esangura prozesuak dira. Hauek errealtateei dagozkienak dira baina ez hain zuzen eguneroko esperientziei dagozkienak. Erraza da jakinaraztea esfera sinbolikoa legitimazio mailarik handienarekin harremanean dela honekin beraz behin betirako gainditzen da aplikazio pragmatikoaren esfera» (Berger & Luckmann 1984: 124-125).

Bibliografía

- Aracil, J., (1992): *Introducción a la dinámica de sistemas*, Alianza Editorial, Madrid [1979¹].
- Barandiaran, J.M., (1974a): "La etnología y las misiones", *Obras Completas V*, 399-410, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo [1935¹].
- , (1974b): "Etniker o investigación de la etnia vasca", *Obras Completas V*, 479-482, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo [1939¹].
- Bateson, G., (1985): *Steps to an ecology of mind*, Thomas Y.Crowell Company Inc., New York [= *Pasos hacia una ecología de la mente*, Ediciones Carlos Lohlé, Buenos aires, 1972, Itz. Ramón Alcalde].
- Bateson, G., *et alii* (1994): *La nouvelle communication*, Editions du Seuil [= *La nueva comunicación*, Editorial Kairós, S.A., Bartzelona, 1982, Itz. Jorge Fíblas].
- Berger, P.L., Luckmann, Th., (1968): *The social construction of reality* [= *La construcción social de la realidad*, Amorrortu Edilores, S.A. Madrid, 1984, Itz. Silvia Zuleta].
- Bertalanffy, L. von, (1986): 1975 *Perspectives on General System Theory*, George Braziller, Inc., New York [= *Perspectivas en la teoría general de sistemas*, Alianza Editorial, 1979, Itz. Antonio Santisteban, Madrid].
- Bertalanffy, L. von *et alii* (1972): *Trends in General Systems Theory*, John Wiley & Sons, Inc [= *Tendencias en la teoría general de sistemas*, Alianza Editoria, Madrid, 1978].
- Caro Baroja, J., (1974): *De la vida rural vasca*, Editorial Txertoa, Donostia [1944¹].
- , (1985): *Los fundamentos del pensamiento antropológico moderno*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- Caro Baroja, J.; Flores Arroyuelo, F. J., (1991): *Conversaciones en Itzea*, Alianza Editorial, Madrid.
- Esteba Fabregat, C., (1984): *Antropología industrial*, Antropos, Bartzelona [1973¹].
- Geertz, C., (1973): *The Interpretation of cultures*, Basic Books, Inc. New York [= *La interpretación de las culturas*, Editorial Gedisa, Bartzelona, 1992, Itz. Alberto L. Bixio].
- Lévi-Strauss, C., (1974): *Anthropologie structurale*, Plon, Paris [= *Antropología estructural*, Paidós, Bartzelona, 1987, Itz. Eliseo Verón].
- Rabinow, P., (1978): *Reflections on Fieldwork in Morocco*, The University of California Press [= *Reflexiones sobre un trabajo de campo en Marruecos*, Júcar Universidad, Madrid, 1992, Itz: Pedro Horrillo Calderón].
- Watzlawick, P., Weakland, J.H., Fischm R., (1974): *Change, Principles of Problem Formation and problem Resolution*, Norton & Company, Inc. New York [= *Cambio*, Editorial Herder S.A. Bartzelona, 1976].
- Watzlwick, P., Beavin, J., Jackson, D., (1967): *Pragmatics of Human Communication*, Norton & Company, Inc. New York [= *Teoría de la comunicación humana*, Editorial Herder S.A. Bartzelona, 1984].